

## BESTELAKO XEDAPENAK

### SEGURTASUN SAILA

## 5450

*EBAZPENA, 2013ko abenduaren 4koa, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariarena, Jendaurreko ikuskizun eta jolas-jardueren lege-aurreproiektua jendaurrean jartzen duena.*

Jendaurreko ikuskizun eta jolas-jardueren lege-aurreproiektua prestatu du Segurtasun Sailak; eta Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak zehaztu bezala izapidetu beharko da proiektu hori.

Xedapen orokorrek herritarren eskubide eta interes bidezko eragiten badiete, entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute, betiere aipatutako 8/2003 Legearen 8.1 artikularekin bat etorritik; eta euren izaera dela eta beharrezkoa bada, jendaurrean jarri beharko dira.

Horren ondorioz, aurreproiektua jendaurrean jarriko da, Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikularekin bat etorritik, eta hogeiei egun balioduneko epea egongo da, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Azaldutako guztiarengatik, Segurtasun Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko apirilaren 9ko 194/2013 Dekretuaren 11.2.a) artikularekin bat etorritik, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jendaurreko ikuskizun eta jolas-jardueren lege-aurreproiektua jendaurrean jartzea hogeiei egun balioduneko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Bigarrena.– Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetara eta alegazioak aurkezteko asmoz, proiekturen edukia Segurtasun Sailaren Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzan egongo da eskura (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz), bai eta euskadi.net-en ere, alegia Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 4a.

Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria,  
EUGENIO ARTETXE PALOMAR.